



EUSKO JAURLARITZAKO LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILAREN MENPEKO ZERBITZUEN DOKUMENTAZIO-ZENTROETAKO KUDEAKETARAKO SISTEMAREN EZARPENERAKO PROIEKTUA

1. HELBURUAK

- Dokumentazio-zentroen antolamendu-egitura berria definitzea giza- eta ekonomi-baliabideak ahalik eta hoberen erabiltzeko.
- Antolamendu-egitura berriaren betekizun eta berezitasunei hoberen erantzuten dion erreminta informatikoa zehaztu.
- Dokumentazio-zentroen kudeaketa-irizpideak bateratu.
- Katalogo komuna sarean sortzea.

2. JARDUKETA EREMUA

Dokumentazioa kudeatzeko sistema berria zerbitzu hauetan ezarriko litzateke:

ZENTROA		ALE KOPURUA
CEIDA Vitoria-Gasteiz	http://www1.euskadi.net/vima_ea_ceida/indice_e.htm	2.700
CEIDA Bilbo		9.900
CEIDA Donostia	http://www.ceida.info/ceida/indice_e.htm	5.000
CEIDA Legazpi		3.000
CEIDA Urdaibai	http://www1.euskadi.net/vima_urdaibai/indice_e.htm	2.100
Ingurugiro Etxea Ingurugiroari Buruzko Museoa	http://www.euskadi.net/vima_educacion/ingurugiro_e.htm	1.200
Peñas Negras Ingurumen Interpretazioko Zentroa	http://www.euskadi.net/vima_educacion/pnegras_e.htm	250
Lakuako Ingurumen Informazioko Zerbitzua		1.100
Lakuako Formakuntza eta Sentsibilizazio Zerbitzua		300
GUZTIRA		25.550

Kontutan izan behar dugu Dokumentazio-zentro hauetariko batek ere ez duela espezifikoki horrela funtzionatzen, beste egitura baten barruan baizik, eta egitura horren azpisaila bezala kontsideratzen dela. Baita ere, Zentro hauetako pertsonalgoak ez duela lan horretarako prestakuntza berezirik; beste eginkizunen arteko gainontzeko ardura besterik ez da.



3. EGUNGO EGOERA

- Dokumentazio-zentroetan hiru kudeaketa-programa ezberdin daude eta beste hirutan ez dago datu-baserik.
- Fidagarritasun-berma haundien eskeintzen duena Bilboko CEIDA da eta katalogo komun berrian integra daiteken bakarra.
- Beste katalogoek ez dute integratzeko bermerik ematen.
- Informazioa berreskuratzeko behar den homogeneotasuna ez dago (batez ere gaien atalean).
- Hala eta guztiz, Bilboko katalogoak arazo larriak agertzen ditu datu-iraulketan oinarri gisa erabiltzeko.

4. BEHARRAK

4.1. Liburutegi-sistemaren antolamendua

- Sortu sistemaren zuzendari-erakundea.
- Sistema definitu (erabiltzaileak, sarbide mailak,...).
- Erabaki-hartze adostua.
- Zentroek zuzendari-erakundearen erabakiak onartu beharko dituzte.

4.2. Datu-baseen kudeaketa-sistema bateratzea

Egungo egoerak informazio guztia datu-base komunean bateratzea ekiditzen duenez, guztiek datu-basea kudeatzeko erreminta berbera erabiltzea ezinbestekoa litzateke. Horrek zera haxe suposatuko luke, on-line funtzionamenduko sarea eta katalogo bakarra sortzea.

4.3. Katalogo bakarra egitea

Katalogo kolektibo komuna zerbitzu gehiago eta kalitatezkoa ematea suposatzen du zera hauexegaitik:

- Dokumentua behen bakarrik katalogatzen da (kokatu besterik ez genuke egin behar).
- Katalogatzeko kooperatiba-planak ezarri litezke.
- Era berean, erosketara kooperatiba-planak ezarri litezke.
- Zentro guztietako dokumentu-funtsa ezagutu genezake.
- Horrela erabiltzaileei kontsulta erraztuko genieke.

4.4. Sistemaren lan egiteko arau eta prozeduren ezarpena

- Liburutegi eta dokumentazio-zentroetan erabiltzen diren arau eta estandarrak onartzea.
- Informazioaren tratamenduari koherentzia eta homogeneotasuna emateko erabiliko diren arauak idatziz ezarri.

4.5. Pertsonalaren formakuntza

Pertsonalak bibliotekonomian eta dokumentazioan formakuntza espezifiko eskuratu beharko luke arlo hauetan:

- Dokumentazio-zentroen antolakuntzan ezagutza.
- Prozesu teknikoetan formakuntza (erraminta informatikoaren erabilera).



- Oinarrizko arauen ezagutza: katalogazio-arauak, SHU, e.a.
- Thesaurus eta indexazio-hizkuntzen ezagutza.
- Norberaren liburutegi-sistemaren ezagutza espezifikoak.

5. PROPOSAMENA

5.1. Lortu beharreko funtzio eta prozesuak, etekinak eta produktuak

Onartuko den datu-baseen kudeasistemak Dokumentazio-zentro bati dagozkion funtzio guztiak ahalbideratuko ditu:

- Fondoaren erosketaren kontrola eta kudeaketa.
- Katalogazioa eta sailkapena.
- Aldizkako argitalpenen kontrola.
- Produktuen edizioa (mezuak, etiketak, barra-kodeak,...).
- Sarean kontsulta bibliografikoaren sarbide-maila desberdinetako modulua.
- Mailegu-modulua.

5.2. Antolamendu-ingurunea

- Lehen aipatutako funtzioak dituen zuzendari-erakundea.
- Zentro berriei zabaltzeko aukera.
- Lineako funtzionamendua eta zentroen arteko koordinazio arina.

5.3. Erabili beharreko teknologiak eta erremintak

- Datu-base erlazionala: Oracle, SQL Server.
- Informazioa eskuratzeko interfazea (bezero/zerbitzaria interfazea, web interfazea).

5.4. Egitura informatikoa eta komunikazioetakoa

Zentro guztiek bermeturik izan behar dute Eusko Jaurlaritzaren komunikazio-sarean sartzea.

(vide komunikazio-eskema)

6. KUDEAKETA-ERREMINTEN EBALUAZIOA

6.1. Kudeaketa-erreminta

hiru erreminta alderatzen dira (ABSYS, BIBLIO 3000, LIBERMARC) Ondorengo kriterioetan oinarrituz

- Erosketen kontrola eta kudeaketa...
- Katalogazioa eta indizazioa.
- Aldizkako argitalpenen kontrola eta kudeaketa.
- Produktuen edizioa.
- Kontsulta bibliografikoa.
- Dokumenturako bidea.
- Estatistikak.
- Bestelako funtzionaltasunak.

Alderaketaren emaitza oso parekatua da, beraz bata edo bestea aukeratzea beste kriterioen arabera izango da (kostua, eskuragarritasuna, ingurunea, e.a.).



Azkenean, ABSYS aukeratuko da Eusko Jaurlaritzaren egitura informatikoan erabat integraturik eta estandarretan definiturik dagoelako. Are gehiago, produktu hau Eusko Jaurlaritzaren EJIeko esparru-programan aurreikusita dagoelako (gainontzeko programek ebaluazio eta homologazio prozesuak gainditu beharko litezketekete).

6.2. Formakuntza

Dokumentazio-zentroetako langileen betekizunen arabera, bi prestakuntza-maila azaltzen dira, oinarrikoa lehena eta aurreratua bestea.

Formakuntza hiru norabide osagarrietara bideratuko da:

- ⇒ Berariazko formakuntza bibliotekonomian.
- ⇒ Kudeaketa-sisteman formakuntza (ABSYS).
- ⇒ Beharrezkoak diren beste erremintetan formakuntza.

6.3. Egin beharreko jarduerak

- Sistema bibliotekarioaren egituraketa eta antolamendua.
- Sistema informatikoaren implementazioa.
- Sistemaren datu-baseak eratzea.
- Datu-baseak sisteman gehitzea.
- Sistema bibliotekarioaren mantentze lanak.

7. SISTEMA BERRIAREN BALIOA

	KONTZEPTU	€	Pta.
1	Sistemaren egituraketa eta antolamendua	5.068	843.245
2	Sistema informatikoaren ezarpena	4.030	670.535
3	Formakuntza (oinarrikoa eta aurreratua)	8.568	1.425.595
4a	Datu-baseak eratzea (Atzera begirako katalogazioa barne)	112.148	18.659.857
4b	Datu-baseak eratzea (Atzera begirako katalogazioa kanpo)	1.908	317.465
5	Liburutegiak Sisteman gehitzea	1.086	180.695
6	Sistemaren mantentze lanak (urteko ordainketa bakarra)	9.300	1.547.390

A1	SISTEMAREN EZARPENA (Ab. katalogazioarekin)	130.900 €	21.779.927 Pta.
A2	SISTEMAREN EZARPENA (Ab. Katalogazio gabe)	20.660 €	3.437.535 Pta.

B	SISTEMAREN MANTENTZE LANAK	9.300 €	1.547.390 Pta.
---	----------------------------	---------	-----------------------

8. SISTEMAREN EZARPENAREN KRONOGRAMA